



PRENTSARAKO OHARRA

## **HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO PRESIDENTEORDEAK, 2017KO BIZKAIKO KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZINO TXOSTENA AZALDU DAU BATZORDEAN**

- **José Ángel Quintanillak Batzarretako taldeen zalantzei erantzun deutse, eta txostenak erakusten dauenez urte horretako Bizkaiko kontuak “garbiak” dirala azpimarratu dau.**

*(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 27an).*- EH Bilduk eskatuta, José Ángel Quintanilla Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko (HKEE) presidenteordea Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordera etorri da gaur, 2017ko ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren ganeko Fiskalizazino Txostena azaltzeko eta zehazteko.

Beste ezer baino lehen, Quintanillak adierazo dau, 2015etik epaitegiko presidentea dan José Luis Bilbao Bizkaiko Ahalduen Nagusi ohia ez dala batzordearen aurrera etorri ez dauelako parte hartu lurraldeko kontuen fiskalizazioan. Epaitegiko presidenteordeak gero azpimarratu dauenez, 2017ko kontuak “garbiak” dira eta, horregaitik, ez da kontabilidadeko doikuntzarik proponiduten diruzaintzako soberakinean, ezta funts propioetan be.

Txostenak azpimarratu dauenez, 7 ez betete izan ezik, Bizkaia ondo bete ebazan urte horretan kontabilidadeko eta ekonomia arloko bere betebeharrak. Salbuespenen artean, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Aldundiaren artean funtzionarioen primen ganeko erespide desbardintasun bat dago; epaitegiak ez litzatekezala PFEZtik salbuetsita egon behar uste dauen arren, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun Sailak zerga hori ordaindu beharretik kanpo izten ditue.

Quintanillak azaldu dauenez, Seed Capital erakundean be ez betete bat ikusi da, muga bako kontratu bat egiteagaitik hutsunerik egon barik, eta beste bat GUFEn, osagai espezifiko baten izaera aldatzeagaitik.

Ganera, 2017ko Fiskalizazino Txostenak erakutsi dau BEAZek eta Garbikerrek, beste soziedade batzuen artean, publizidade eta lehia printzipioak beteten ez eben kontratazinoen bat egin ebela.

Barruko kontrolari eta kudeaketa prozedurari jagokonez, Fiskalizazino Txostenak 15 gabezia erakusten ditu kontratazino sistemetan eta gabezia bat diru-laguntzen atalean. Dana dala, Quintanillaren berbetan, gabezia horreek “ez dira garrantzitsuak”.

Arantza Urkaregi (EH Bildu) arduratuta agertu da, “urtez-urte errepiketan diran gabezia batzuk” dirala eta, Garbiker aitatzuz, eta “larria iruditzen jaku” gehitu dau. Talde Bereziaren / PP Bizkaiaren izenean, Eduardo Andradek, hauteman diran 7 ez beteteetatik, “2015etik errepiketan diran lau dagozala” kritikau dau. Horrek, bere eretziz, “foru erakundeek kontratazinoagaz arazoak daukiezala” erakusten dau.

“Deigarria da behin eta berrero agertzen dala Fiskalizazio Txostenean HKEEren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko erespide desbardintasuna borondatezko erretiroengaitik, ezintasunagaitik eta errenuntziarengaitik jasoten diran primak PFEZtik salbuetsita egotearen inguruan”, adierazo dau Xabier Benitok (Elkarrekin Bizkaia).

Euskal Sozialistak taldearen izenean, Jesús Ortizek txostenaren emaitza positiboa azpimarratu dau, eta epaitegiko ordezkariaren azalpenak eskertu ditu. Antzera egin dau berba Euzko Abertzaleak taldeko Unai Lermak, eta azpimarratu dauenez, txostenak “agerian izten dau Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa zuzena eta oso egokia”.

Berba egiteko bigarren eta azken txandan Quintanillak zehaztu dau HKEEk “salbuespen” moduan egiten dauela behar bere txostenean, eta “txarto dauena bakarrik” azaltzen dauela. Epaitegiko presidenteordeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa “asko hobetu dala”, eta bere jardunbideetan “aurreko urteetan Epaitegiak egin dituan txostenetan jasoten ziran proposamen asko” jasoten ari dala azpimarratu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **EL VICEPRESIDENTE DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS EXPLICA EN COMISIÓN EL INFORME DE FISCALIZACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DE BIZKAIA DE 2017**

- **José Ángel Quintanilla ha respondido a las dudas de los grupos junteros y ha destacado que el informe considera “limpias” las cuentas de Bizkaia de ese año.**

*(Bilbao, a 27 de enero de 2020).*- En la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia ha comparecido hoy, a petición de EH Bildu, José Ángel Quintanilla, vicepresidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), para explicar y detallar el Informe de Fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2017.

En primer lugar, Quintanilla ha señalado que no ha comparecido ante la comisión el presidente del tribunal desde 2015, el ex Diputado General de Bizkaia José Luis Bilbao, porque no ha intervenido en la fiscalización de las cuentas del territorio. El vicepresidente del tribunal ha destacado después que el informe concluye que las cuentas de 2017 son “limpias” y por ello, no se proponen ajustes contables al remanente de tesorería ni a los fondos propios.

El informe detalla que, excepto por 7 incumplimientos, Bizkaia cumplió bien ese año con sus obligaciones contables y económicas. Entre las salvedades, se encuentra una diferencia de criterio entre el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y la Diputación respecto a las primas de funcionarios.; mientras el tribunal cree que no deberían estar exentas de IRPF, la Diputación Foral y la Hacienda de Bizkaia las excluyen del pago de este impuesto.

Quintanilla ha explicado también que han detectado un incumplimiento en Seed Capital por realizar un contrato indefinido sin existir plaza vacante y otro en IFAS por alteración de la naturaleza de un complemento específico.

Además, el Informe de Fiscalización de 2017 ha detectado que BEAZ y Garbiker, entre otras sociedades, realizaron alguna contratación sin cumplir los principios de publicidad y concurrencia.

Respecto al control interno y procedimiento de gestión, el Informe de Fiscalización señala 15 deficiencias en los sistemas de contratación y 1 deficiencia en el capítulo de subvenciones aunque Quintanilla ha precisado que estas deficiencias no se consideran de “suficiente entidad”.

Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha mostrado su preocupación por “algunas deficiencias que se repiten año a año”, citando a Garbiker, y añadiendo que “nos parece grave”. En nombre del Grupo Mixto / PP Bizkaia, Eduardo Andrade ha criticado que de los 7 incumplimientos detectados “hay cuatro que se repiten desde el año 2015” lo que demuestra, en su opinión que “los entes forales tienen problemas con la contratación”.

“Nos llama la atención que reiteradamente aparece en el Informe de Fiscalización la diferencia de criterios entre el TVCP y la Diputación Foral de Bizkaia por la existencia de primas de jubilación voluntaria, incapacidad y renuncia exentas de IRPF”, ha asegurado Xabier Benito (Elkarrekin Bizkaia).

En representación de Socialistas Vascos, Jesús Ortiz ha destacado el resultado positivo del informe y ha agradecido las explicaciones del representante del tribunal. En el mismo sentido se ha pronunciado Unai Lerma, del grupo Nacionalistas Vascos, quien ha subrayado que el informe “pone de manifiesto la correcta y la muy adecuada gestión de la Diputación Foral de Bizkaia”.

En su segundo y último turno de intervención, Quintanilla ha precisado que el TVCP trabaja en sus informes “por excepción”, manifestando “sólo lo que está mal”. El vicepresidente del tribunal ha destacado que la gestión de la Diputación Foral de Bizkaia “ha mejorado muchísimo” y que está adaptando en sus prácticas “buena parte de las propuestas de mejora de los informes del Tribunal de años anteriores”.